

Cultur !zan 2023

Tradiziozko arte
adierazpenen
egitaraua

Parte-hartzaileak:



NAFARROAKO
DANTZARIEN
BILTZARRA



Antolatzailea:

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Indice

Aurkezpena	3
▶ Zer esan nahi du CULTUR-IZAN-ek?.....	4
▶ Komisarioak.....	4
Egitaraua	5
▶ Mapa.....	6
▶ Nafarroako Jota, herri baten adierazpena.....	7
▶ IkasMutilDantzak.....	8
▶ Bertsondare.....	9
▶ Eskola magistrala.....	10
▶ "Gamazada"ren 130. urteurrena ospatzeko ikuskizuna.....	11
▶ Agenda.....	12

Aurkezpena

Cultur-Izan Nafarroako Gobernuak herri kulturaren arloan bultzatzen duen lehen zikloa da, eta 2022an sortu zen, Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiak eskatuta, Musikaren, Dantzaren eta Ahozko Adierazpen Herrikoien Mahaia eratu zenean, herri kulturako hainbat entitateen ordezkariak biltzeko. Partaidetza eta hausnarketa foro horren helburuak honako hauek dira: elkarteen, federazioen eta taldeen eta administrazioaren artean partaidetza eta elkarrizketa bide bat irekitzea; programen eta laguntzen egungo eskaintza baloratzea; konponbideak antolatzea gaur egun Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin lan egiten duten elkarte eta eragileentzat; eta hausnarketa eta bilakaera prozesu horiei laguntzeko ekintza berritzaileak ezartzea.

Mahaiaren azken txostenak indarguneak eta arazoak hauteman zituen, erronkak identifikatu zituen eta irtenbideak proposatu zituen, besteak beste, Nafarroako Gobernuaren kargurako programazioaren esparruan.

Kezka horri erantzuteko, Kultura Zuzendaritza Nagusiak konpromisoa hartu zuen 2023an kultura tradizionalaren eremu horretara bideratutako programa propio bat sortzeko, Mahaiari lotutako eragileen parte-hartzearekin. Beraz, Cultur-Izan proposamena Nafarroa osoan garatuko da, eta erakusketa ez ezik, ikusleria berriekiko bitartekaritza, berrikuntza eta kalitatea ere landuko dira. Eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren programa bat da, herri kultura goratu eta arte modalitate bihurtzeko konpromisoa duena.

Cultur-Izan programaren hasiera bat dator 2023an UNESCOren Kultur Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioaren 20. urteurrenarekin. Gertakari horrek balio du nabarmentzeko mota horretako ekintzak jardunbide egokiak direla Nafarroako eragile publikoek eta pribatuek kultur ondare immateriala balioztatzeko eta babesteko. Azken batean, helburua da balioa ematea askotariko tradizio eta adierazpenak barne hartzen dituen komunitate batek partekatutako kulturaren adierazpena.

REBECA ESNAOLA BERMEJO

**Kultura eta Kiroleko kontseilaria
Nafarroako Gobernu**

Zer esan nahi du CULTUR-IZAN-ek?

E samolde hau gaztelaniazko eta euskarazko hitz joko bat da, eta "Kultura izan" adierazi nahi du: gizakia berez "biokultura-la" da; beraz, izan garenaren eta egun garenaren ezagutza ez da ulertzen "sustraiiko kultura" kontuan hartu gabe.

Cultur-Izan programaren helburua da Nafarroako musika, dantza eta ahozko adierazpen herrikoiak zabaltzea eta haien arteko bitartekaritza egitea, guztiak ere kultur ondare immaterialaren elementuak baitira.

Lehen edizio honetan, programa osatu dute ibilbide luzeko Nafarroako hainbat erakundek, Mahaian parte hartu baitute, hala nola Nafarroako Dantzarien Biltzarrrak, Ortzadar Euskal Folklore Elkartek, Nafarroako Bertsozaleen Elkartek eta NavarJotak. Gainera, Tanxugueiras taldeak Nafarroako Filmotekan emanen duen maisu eskolarekin osatuko da 2023ko edizio pilotua.

Jarduerak ez dira toki bakar batean gauzatuko: Nafarroako hainbat herritan antolatuko dira.



Komisarioak

MARCOS ANDRÉS VIERGE ETA
IGOR SAENZ ABARZUZA

marcos Andrés Vierge eta Igor Saenz Abarzuza Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak eta ikertzaileak dira.

Biak dira erakunde horretako Musikaren arlokoak. 2016az geroztik, lan bat egiten ari dira Nafarroako musika ondare immaterialari lotuta, ikuspegi akademiko, ikertzaile eta artistiko batetik.

Alde horretatik, beren azken lana hauxe izan zen: *En-Kantu: Música y Territorio* diskoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2021ean ekoizitakoa, sortu, grabatu eta interpretatzea eta hura hainbat kontzertutan proiektatzea.

Εgitaraua



Mapa



NAVARJOTA

Nafarroako Jota, herri baten adierazpena

Navarjota Elkarteak sortutako ikuskizuna. Haren ardatz nagusia Nafarroako Jota abestia, dantzatua eta instrumentatua izanen da, giza sentimendu sakonenen eta uste sendoenen eta bizipenen adierazpen lirikotzat hartuta.

Jotari buruzko azalpenak testuinguruan jarriko dira, eta presente dagoen egungo giroetara bideratuko dira, irudien eta parte hartzen duten taldeen jarduketan proiektzioaren bidez.

Ibilbide bat egingen da jotak Nafarroan dituen agerpenetan barna, eta askotariko musika adierazpen gisa erakutsiko da alderdi instrumentalean, errondaila, txistulari eta gaiteroen eskutik.

Ikuskizun hori prestatzerakoan, kontuan hartu da jota UNESCOren Munduko Ondare Immaterialaren Zerrenda Adierazgarrian gehitzeko prestatu den ekimen berria, Nafarroako jotaren balio kultural eta soziala aldarrikatzeko neurri gisa.



📅 IRAILAREN 2an

🕒 20:00ean

📍 CORELLAKO
KULTUR ETXEAN

SARRERA DOAN, BETE DAITEZKEEN
LEKU GUZTIAK BETE ARTE

NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA

IkasMutilDantzak

Nafarroako Dantzarien Biltzarrak Baztango mutil-dantzen inguruan antolatutako prestakuntza zikloa, Foru Komunitate osoan horien ezagutza eta sozializazioa bultzatzeko. Jarduera berdintasunaren eta inklusibitatearen balioak kontuan hartuta diseinatu da, eta interesa duten guztiek hartzen ahalko dute parte.

Honako hau izanen da parte-hartzaileentzako abiapuntuko dantzen bilduma:

<i>Aunitz urtez</i>	<i>Añarxume</i>	<i>Billantziko zaharra</i>
<i>Hiru puntukoa</i>	<i>Xerri-begi</i>	<i>Zahar-dantza</i>
<i>Billantziko</i>	<i>Xerri-begi zaharra</i>	<i>Mando zaharrarena</i>
<i>Zozuarena</i>	<i>Zazpi-jauzi</i>	<i>Ardoarena</i>
<i>Xoriarena</i>	<i>Zazpi-jautzi zaharra</i>	<i>Añar-haundi</i>
<i>Biligarroarena</i>	<i>Muxikoa</i>	<i>Tellarin</i>
<i>Biligarroarena zaharra</i>	<i>Billantziko txiki</i>	

Baztandarrak taldeko kideek zuzenduko dute prestakuntza saio bakoitza, eta, amaitzeko, ikasitakoa erakutsiko da partaidetza eta bizikidetza giroan. Azken saioa Nafarroako Museoa izanen da, eta, hitzaldiaz gain, mutil-dantzen erakustaldia egingen du Baztandarrak taldeak.

Tailerren egutegia:

IRAILAREN 2an, AGOIZKO KULTUR ETXEAN.

IRAILAREN 9an, FALTZESKO PEDRO ITURRALDE ZENTRO ZIBIKOAN.

IRAILAREN 10ean, FUSTIÑANAKO ZENTRO ZIBIKOAN.

IRAILAREN 16an, LAKUNTZAKO ZENTRO ZIBIKOKO ZINEMA ARETOAN.

IRAILAREN 17an, BERAKO EZTEGARA PILOTALEKUAN.

IRAILAREN 24an, TAILERRA DOWNZAS TALDEAREKIN, NOAINGO (ELORTZIBAR) KULTUR ETXEAN.

IRAILAREN 30ean, AZKEN SAIOA NAFARROAKO MUSEOA, IRUÑA.

MATRIKULA DOAKOA IZANEN DA, ETA HONELA EGITEN AHALKO DA:

AGOITZ: cultura@aoiz.es

FALCES: 948 734 845/698 953741 / oficinaturismo@falces.org
Turismo Bulegoan ere aurrez aurre

FUSTIÑANA: fusticultura@gmail.com / Udalak: Miguel Arrondo 11:00etatik 13:30era

LAKUNTZA: 948 576 015 / info@lakuntza.eus / Kontaktua: Amets-Nekane

BERA: 948 63 12 22 / kultura@bera.eus / [Izena emateko formularioa](#)

NOAIN (Elortzibar): 948 317 305 / nbeloqui@culturanoaincom

SAIOAK FORMATU ETA ORDUTEGI HONETAN EGINGEN DIRA:

PRESTAKUNTZA TAILERRA: 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:50era

PARTE-HARTZAILEEN KONTURAKO ERAKUSKETA: 19:00etatik 19:30era

NAFARROAKO MUSEOKO AZKEN SAIOA HONELA GARATUKO DA:

BAZTANDARRAK TALDEAREN HITZALDIA, 11:30ean, EKITALDI ARETOA.
MUTIL-DANTZEN ERAKUSTALDIA, 13:00etan, MUSEOKO BEGIRATOKIA.

SARRERA DOAN, BETE DAITEZKEEN LEKU GUZTIAK BETE ARTE

BERTSOZALE ELKARTEA


Bertsondare

Iratxeko monasterioaren historiari buruzko bertso saio berezia. Hauek izanen dira parte-hartzaileak: Ander Aranburu gai jartzailea (gaien hautatzailea), eta Saioa Alkaiza (2021) eta Julio Soto (2010, 2011, 2015 eta 2017) bertsolaritzako Nafarroako txapeldun gazteak.

Jendeak monasterioko hainbat gelatan barrena egingen du ibilbidea. Bertan, bertsolariek bat-batean botako dituzte bertsoak, monumentu horrekin Erdi Arotik XX. mendera arte lotutako gertakari eta pertsonaia historikoen gainean.

Proposamen horrek bertsolaritzaren tradizioa (Kultura Intereseko Ondasun Immaterialeko deklaratuak) eguneratu eta Nafarroako oraingo herritarrekin lotu nahi du, bai eta bertsolarien belaunaldi berriarekin elkartzeko arrazoi eta agertoki bihurtu ere Foru Komunitateko ondare espazio bat.

 **IRAILAREN 9an**

 **11:30ean**

 **IRATXEKO MONASTERIOAN,
AIEGI**

SARRERA DOAN, BETE DAITEZKEEN LEKU GUZTIAK BETE ARTE

Oharra: jarduera oso-osorik euskaraz egingen da

TANXUGUEIRAS

Eskola magistrala

Tanxugueiras taldeko kideek hitzaldi performatiboa emanen dute. Bertan azalduko digute zein bizi eta arte esperientzia izan duten, tradizioa abiapuntu gisa erabiltzean gaur egungo gizartearekin eta kulturearekin bat datorren errepertorioa eta eszenaratzea sortzeko.

Sabela Maneiro, Aida Tarrío eta Olaia Maneiro dira Tanxugueiras. Hiru *cantareira* horiek (kantariak) *pandeireteirasen* (emakumezko pandero joleak) ondarea jasotzen dute, zeinek Galiziako musika tradizionala bizirik mantentzeko lan egin baitute. Beraiek baino ez dira gai milaka urteko tradizio baten soinuak berrinterpretatzeko eta hiri erritmoekin fusionatzeko, trap edo elektronikatik hurbilago badaude ere. Energia, ahalduntzea, sendotasuna eta ahots birtuosismoa dira haien estilo berritzailearen adierazle nagusiak; estilo horri "trad" izena jarri zaio.

Herrialdeko proposamenik berritzaile, jator eta harrigarrietako bat dira, eta 2022an hirugarren diskoa argitaratu zuten: disko kontzeptuala da, *DILUVIO* izena du, eta *Xira Midas* bira indartsuan aurkezten ari dira.

📅 IRAILAREN 13an

🕒 19:00etan

📍 NAFARROAKO
FILMOTEKA,
IRUÑA

SARRERA DOAN, BETE DAITEZKEEN LEKU
GUZTIAK BETE ARTE



ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE ELKARTEA

“Gamazada”ren 130. urteurrena ospatzeko ikuskitzuna


2023an 130 urte bete dira “Gamazada” izeneko gertaera historikotik: herri iraultza izan zen, Gamazo ministroak Nafarroako zerga araubidea ezabatzeko asmoaren aurkakoa. Gertaera historiko horren kariaz, 1894an, Joselico izenez ezagutzen zen José Jarautak bertso sorta bat egin zuen, Monteagudoko urte horretako paloteadoan interpretatzeko.

1978an, Nafarroako Erriberan bi urtez landa lana egin ondoren, Ortzadar Euskal Folklore Elkarteak ikuskizun bat aurkeztu zuen, José Jarautaren paloteadoa antzetzeko, jatorrizko testua eguneratu eta testuinguru berrienera egokitu ondoren.

Oraingo honetan, Nafarroarentzat hain esanguratsua den ekitaldi historiko baten 130. urteurrena ospatzeko, paloteadoaren bertzio berri bat proposatu du, 1978ko testu egokituan oinarritua, testu hori berri ere egungo errealitatera hurbiltzeko asmoz, Oier Zúñiga antzerki zuzendariaren eskutik.

Emanaldi horretan, 16 dantzarik, 8 musikarik eta hainbat aktore-musika eta dantza pieza tradizionalak eta herri antzerkiko piezak antzetzuko dituzte.

 URRIAREN 8an

 12:00etan

 LABRIT PILOTALEKUAN,
IRUÑA

SARRERA DOAN, BETE DAITEZKEEN LEKU GUZTIAK
BETE ARTE

Agenda

IRAILAREN 2an

20:00ean / KULTUR ETXEA, CORELLA

NAVARJOTA

Nafarroako Jota,
herri baten adierazpena

IRAILAREN 2an

TAILERRA: 09:30etik 14:00etara eta
16:00etatik 18:50era ERAKUSKETA: 19:00etan
KULTUR ETXEA, AGOITZ

NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA

IkasMutilDantzak

IRAILAREN 9an

TAILERRA: 09:30etik 14:00etara eta
16:00etatik 18:50era ERAKUSKETA: 19:00etan
PEDRO ITURRALDE ZENTRO ZIBIKOA, FALCES

NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA

IkasMutilDantzak

IRAILAREN 9an

11:30ean / IRATXEKO MONASTERIOA, AIEGI

BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsondare

IRAILAREN 10ean

TAILERRA: 09:30etik 14:00etara eta
16:00etatik 18:50era ERAKUSKETA: 19:00etan
ZENTRO ZIBIKOA, FUSTIÑANA

NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA

IkasMutilDantzak

IRAILAREN 13an

19:00etan / NAFARROAKO FILMOTEKA, IRUÑA

TANXUGUEIRAS

Eskola magistrala

IRAILAREN 16an

TAILERRA: 09:30etik 14:00etara eta
16:00etatik 18:50era ERAKUSKETA: 19:00etan
ZENTRO ZIBIKOA, LAKUNTZA

NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA

IkasMutilDantzak

IRAILAREN 17an

TAILERRA: 09:30etik 14:00etara eta
16:00etatik 18:50era ERAKUSKETA: 19:00etan
EZTEGARA PILOTALEKUA, BERA

NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA

IkasMutilDantzak

IRAILAREN 24an

TAILERRA: 09:30etik 14:00etara eta
16:00etatik 18:50era ERAKUSKETA: 19:00etan
KULTUR ETXEA, NOAIN (ELORTZIBAR)

NDB + NOAINGO DOWNZA DANTZA TALDEA

IkasMutilDantzak

IRAILAREN 30ean

NAFARROAKO MUSEOA, IRUÑA

NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA

IkasMutilDantzak

BAZTANDARRAK TALDEAREN HITZALDIA, 11:30ean
(EKITALDI ARETOA)

MUTIL-DANTZEN ERAKUSTALDIA, 13:00etan
(BEGIRATOKIA)

URRIAREN 8an

12:00etan / LABRIT PILOTALEKUA, IRUÑA

ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE ELKARTEA

"Gamazada"ren 130. urteurrena
ospatzeko ikuskizuna